BURUKO HURA NORK EGIN ZION JAKIN NAHI ZUEN SATORTXOA

Testua: WERNER HOLZWARTH

Irudiak: WOLF ERLBRUCH

Itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

Kartoi gogorrean egina. 27 x 21 cm. 32 orrialde. 15 €.

HAUR LITERATURAKO ALEMANIAKO SARIA
SARIA ANDERSEN 2006 - SARIA ASTRID LINDGREN 2017 (Ilustratzailea)
IRAKURKETAREN PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxoa
(euskara). ISBN 978-84-95123-79-4. Amets egiteko liburuak.

La talpeta que volia saber qui li havia fet allò al cap
(katalana) . ISBN 978-84-951237-8-7. Libros para soñar.

A toupiña que quería saber quen lle fixera aquilo na cabeza
(galegoa). ISBN 978-84-8464-619-8. Tras os montes.

A toupeira que queria saber quem lhe fizera aquilo na cabeça
(portugesa). ISBN 978-972-8781-00-2. Livros para sonhar.

Egun batean, satortxoak burua azaldu zuenean
lur meta baten erdian egunaren argitzea ikusteko,
burukoa gertatu zitzaion.
(Biribila eta marria zen, txorizo baten antza zuen
Baina okerrena hauxe zen: buruan erori zitzaiola!)...

Satorra bere zulotik atera, eta zerbait erori zitzaion buru gainera, txapel kirasdun bat. Orduan, harat-honat ibiliko da, ikaragarri sumindua, han bizi diren animalietatik txerrikeria hori zeinek egin dion jakin nahian: usoa, zaldia, erbia...

Ipuin honek, besteak beste, Haur Literaturako Alemaniako Saria irabazi zuen, eta 20tik gora hizkuntzatara itzuli da 25etik gora herrialdetan.

Ipuin honek aise eragiten du irria, eta irakurleak satorrarenganako enpatia sentituko du, erabat mindua baitago. Haurrak zein helduak, istorio honekin, bizia bera bezain naturala den gai honetara hurbilduko dira, zeren, ezin naturalagoa izanagatik, gutxitan agertzen da liburuetan.

- **Gaia:** buruan "hura" egin zion animaliaren bila dabilen sator bat.
- **Adin egokia:** irakurtzen hasi diren umeak.
- **Nabarmentzeko modukoak:** umorea, jolas tipografikoak, irudi deigarriak; animalien deskripzioa, zer jaten duten, zer egiten duten, nola eta non bizi diren.

Werner Holzwarth

(Winneden, 1947)

Industria arloan hasi zen trebatzen, eta Berlinen graduatu zen. 1973. urtean publizitate agentzientzat hasi zen lanean, lehenbizi idazle gisara, eta gero sormeneko zuzendari bezala. 1980tik 1982ra bitartean, *free-lance* kazetaria izan zen. 1990. urtean bere publizitate agentzia sortu zuen. 1995az geroztik, ikusizko Komunikazioko irakaslea da Weimar-eko Unibertsitatean.
http://www.wernerholzwarth.blogspot.de

Wolf Erlbruch

(Wuppertal, 1948)

Diseinu grafikoa ikasi zuen, eta marrazkilari-lanean aritu zen publizitate industrian. 80ko hamarkadan, haurrentzako liburuak idazten eta ilustratzen hasi zen. 1990etik 1997ra bitartean, marrazki grafikoko eta ilustrazioko irakaslea izan zen Düsseldorf-eko Arte Ederretako Unibertsitate Eskolan. Gaur egun Arte irakaslea da Wuppertal-go Unibertsitatean. Sari asko jaso ditu; nabarmenenak hauek: Haurren Literaturako Alemaniako Saria, Haur eta Gazteentzako Liburuen Boloniako Azokako Saria, Gazteen Literaturako Alemaniako Sari Berezia 2003an –bere obra guztiagatik–, Hans Christian Andersen Saria 2006an eta Astrid Lindgren Saria 2017an.

www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com